

BALIO PROPOSAMENA

Familia batek bataz-beste 400 euro gastatzen ditu urtean jostailuetan. Gainera, kasu gehienetan ematen zaien erabilera oso denbora laburrekoa izan ohi da. Aldi berean, haurrek eskatzen duten guztia jasotzen dutenean, lortzen den gauza bakarra gauzek duten balioaz ez ohartzea da. Hori gutxi balitz, gaur egun dagoen ekonomi-sistema zirkularraren printzipioen aurka doa, jostailu hauek ez baitira berrerabiltzen; denbora-tarte txiki batez erabili eta gero, ume hauek jostailuetaz aspertzen dira, ondorioz, jostailuak baztertzera eramaten dute. Zer esanik ez jostailuek dakarten plastiko-kontsumoaz eta honek ingurugiroan duen eraginaz.

Arazo hauentzat, guk konponbidea aurkitu dugu, jostailuen liburutegia sortu dugu. Proiektu honek liburutegi baten funtzionamendua du, baina jostailuekin. Hau da, kuota finko baten truke bezeroek hainbat jostailu eskuratzeko aukera izango dute epe jakin batean. Jostailuen liburutegiak familien ekonomietan onurak ekarri ditzake, kobratuko dugun kuota (10€ 5,5€ bitartekoa) normalean familia batek jostailuetan gastatzen duenarekin konparatuz merkea baita. Gainera, plastikoaren kontsumoa murrizten du, ingurugiroa errespetatuz. Bestalde, enpresa honetan desgaitasuna duten pertsonekin lan egingo dugu; lana lortzeko zailtasunak dituzten pertsoneri enplegua eskainiz.